# Marien Esku-liburua

R.2890
ATV
18.864
M.2836
R.34769

# Jaun-łeku-Kalbariyotako Marien Esku-liburua

Tosa'n:
"Guipuzkoako" egillearenean
1920.


OBRA DE LAS TRES MARIAS
SACRARIOS CALVARIOS

# ESKU-LIBURUBA

## JAUN-LEKU[1]

## KALBARIYOTAKO MARIENTZAT

(1) Sagrario.

Bíar dan baimenaz

# OAŔA

*Esku liburu onek ez dakaŕtzki Marientzat zeregin beŕiyak. Ez. Emen ezaŕtzen dana, beaŕa ez da Maria izateko.*

*Irakuŕgai au aŕgitaratzian, nere asmo bakaŕa izan da gure lan maitagaŕi au gaŕbi gaŕbi azaltzia; bere-bereziya dalako oso eŕaz gaizki aditu liteke ta. Al banu, subaz josiko nituzke bai nere, ta bai Maria guziyen biyotzetan itz oek:* BAKAŔIK DAGO, TA LAGUN EGIN DEZAIOGUN; *gure gogapen, asmo, itz, idazki ta egite guztiyak Jesus Aldaretubaren Biyotzarenganontz zuzendurik, Beretzat bakaŕik izan ditezen. Oŕtako soŕtubak dira Mariak, eta orixe*

bera ageŕtu nai nuke esku liburu onen otoitzen bidez.

¡Gure Jaun bakaŕtuaren Biyotz xamuŕa! Leŕo oek izan bitez Zure Mariak esan eta eskatzia nai dezunaren aŕgi-bidia; ta zorionekua ni, Jaun-leku batzuen auŕian irakuŕtzen astean, noiz edo noiz beren begiyak malko samiñez beteta jaŕaitu eziñik gelditkuo balira

## JAUN-LEKU-KALBARIYO BATERA BIDIA ARTZERAKO OTOITZAK

*Bidia artu auretik, ondo egongo litzake Mariak Jaun-leku baten aurian belaunikatuta, esatia:*

*Guztiyak:* Aitaren, eta Semiaren eta Espiritu Doitsuaren izenean. Ala izan dedila. Onespenduba ta goretsiya izan bedi Jesusen Biyotz Aldaretuba, ta Jainkoaren Ama ta gure Andrazko erugabea. Ala izan dedila.

*Batek:* Aizpak: Jesusen Biyotza, bakarik, iñortxo gabe dago (onelako edo alako Jaun-lekuan), eta oska dagokigu....

*Gañerantzekuak:* Guazen azkar lagun egitera.

—Onespenduba izan bedi deitzen digun Erakuslea.

—Onespenduba ta goratuba izan bedi beti beti.

—Onespenduba izan bedi gure atsegiña baizik bilatzen ez duban Biyotza.

—Onespenduba ta goratuba izan bedi beti beti.

—Onespenduba izan bedi gure Jaun-leku onetan iñoŕtxo gabe dagoan, eta bere Mariak egin gaituan Jesus maitia.

—Onespenduba ta goratuba izan bedi beti beti.

—Marien Bakaldun oŕbangabea ta guztiyen aŕtean lenbizikua ikasbide ona eman, guŕtu ta bidegabekeriyak oŕdaintzen.

—Erakutzi zaiguzu Maria onak izaten.

—Jaun-leku-Kalbariyotako Gotzon (1) guŕtzaleak, ikustera goazen eŕiyan jaiotako zerutaŕak, Jaun-leku onen onduan bizi zeraten ume eŕugabeak eta zuen Jaunlekuaren beŕi bazendute, biyotz guztiz maitatuko zenduketen kristau onak

—Atozte eraman aundiko Jesusen Biyotzian bakaŕtasunak eta bi-

(1) Angel.

degabekeriyak josi dituzten arantzak kentzen guri laguntzera.

—Eŕi ortako bizidun eskeŕtxaŕ ta aztukoŕen Gotzon Zaindariyak.

—Erakaŕi itzatzue oyek ere gurekin batean beren Jaun-lekura; ta nai ez badute, beren oŕdez etoŕi zeok.

Kalbariyoko Maria agintari ta lenenak.

—Erakutzi zaiguzute ondo geren zeŕ egiña; Jaun-leku oŕtan Jesusen Biyotz maitagaŕiya noŕk otseindu, gozatu, poztu ta guŕtu gabe egon ez dedin.

—Eskeŕak eman ditzagun zer egin samuŕ ontara deituak izan geralako, ta gure utsegite guztiyen baŕkapenerako esan damuz: «Nere Jesukŕisto Jauna»...

—Ta ibili aldi ontako une bakoitza gure Jesus maitagaŕiyaren gorapen eta oŕdaingaŕi izan dedin, esan dezagun:

—Aita guria...

—Eman iguzu...

—Aguŕ Maria...

—Santa Maria...

—Gloria...

—Onespenduba ta goratuba izan bedi...

*Guztiyak*: Pakia, osasuna, ta Aita Jainkoaren, eta Seme Jainkoaren eta Espiritu Doitsuaren bedeinkapenak ibili-aldi ontan lagundu, ta gurekin beti izan bitez. Ala izan dedila.

(Bide luzian juan biaŕ izan ezkero, esan edo gogaldu liteke Dabid igaŕlearen XXI'gaŕen eresiya. Oŕ azaltzen da gaŕbi asko Jesukŕisto gure Jaunak mundu ontan bizi zala eraman zuan Nekaldi odoltsuba, ta berebat Jaun lekuan daraman odolgabea. Gogora ekaŕi zazu Jesukŕisto bera Gurutzearen goienian asi zala eresi au esaten, ziotzanian: «Ene Jainkoa, ene Jainkoa, ¿Zeŕgatik utzi nazu?» Jaun-leku askotan, ¿zenbat aldiz ote diyo orixe bera?)

# I.

*Dabid igaŕlearen XXI'gaŕen eresiya iragaŕka jaŕiya dago Jesukŕistoren aoan.*

2. ¡Ene Jainkoa! Ene Jainkoa, Zure begiyak itzuli nigana!
¿Zeŕgatik utzi nazu?
Nere obenen otsak,
Aientzen dute nigandik osasuna.
3. ¡Ene Jainkoa! Gau ta egun ozka nagokizu, ta ez nere erakeriz,
Ala ere ez didazu entzuten.
4. Baña Zu toki doitsuban bizi zera.
¡O Isŕael'ko gorapena!
5. Zugan itxedon zuten gure auŕekuak;
Zugan itxedon eta Zuk askatu.
6. Zuri ots egin eta Zuk gaizkatu.
Zugan itxedon eta etziran lotsagaŕi gelditu.
7. Ni oŕdia xamoŕu naiz, ta ez gizona;
Gizonen lotsakizun ta eŕiyen iguingaŕi.

8. Begiratzen didaten guztiyak isekatzen naute,
Ta burubai eragiñaz esan ere bai:
9. «Jaunagan itzedoten duan ezkero, Jaunak azka dezala:
Maitatzen duan ezkero, gaizkatu beza.»
10. Zuk oŕdia, Jauna, atera niñuzun nere amaren sabeletik;
Zu zera nere uste osoa jaio nitzanetik.
11. Nere amaren eŕaietatik zure besoetara bota ninduen;
Amaren sabeletik Zu zera nere Jainkoa.
12. ¡Ez aldendu, Jauna, nigandik,
Naigabia badatoŕ,
Ta lagundu nai ditanik ez dagota!
13. Txekoŕ askok inguratu naute
Ta zezen gizenak eŕtxitu.
14. Beren aoa, leoi lapur maŕauzalearen erara,
Iriki zuten nere auŕka.
15. Ixuri dan ura bezelakoa naiz;
Ta nere ezuŕ guziak irausi dira,

Nere biyotza ařgizaiaren antzera
Eřai bařunpian uřtzen dijua.
16. Nere indařak zařpiļaren eran legořtu ziran.
Eta nere mingaña aozapaiari itxasi zitzaion.
Eta obiraño eraman nazu.
17. Ba txakuř asko nere ondora etoři ziran;
Eta gaitzkiļe talde aundi batek eřtxitu ninduan,
Esku oñak zulatu zizkidaten,
18. Eta nere ezuř guztiyak zenbatu litezke.
Eta berak oařtu ta begiraka egon ziran.
19. Nere jantziyak beren ařtian zabaldu
Ta soinpekua sotz eginzuten.
20. Baña Zuk, Jauna, Zure laguntza neri eman
Ta zaitu nazazu.
21. ¡Ene Jaungoikoa, nere bizitza bułni zorrotzetik askatu ezazu,
Ta nere gogua txakuřen atzapařetatik!
22. Leoiaren aotik gaizkatu nazazu,

Ta nere gogua ere bai adaŕbatunetatik!

II.

*Jesukŕistoren garaipena bai bere Beŕpistean, bai bere Oteunian,* (1) eta *beren ondorenak.*

23. Zure izena nere anaiai adieraziko diyet;

Zure gorapenak Elizaren eŕdiyan baŕeatuko ditut.

24. ¡Jaunari bilduŕ diyozutenak Bera goretsi zazue!

¡Jakob'en jatoŕikuak zeratenok Bera goratu!

25. Isŕael'ko ondorengo guztiyak bilduŕ izan bezaiote;

Beaŕtsuaren eskariya bazteŕtu etzualako.

Ta bere aŕpegiya ere nigandik aldendu etzualako

Baizik ots egin niyonian entzun zidan.

26. Nere goretsiyak Eliz aundiyan Zuganontz zuzenduko dira

Nere agindubak beteko ditut bilduŕ dizutenen auŕean.

---

(1) Eucaristía.

27. Beaŕtsuak jango dute ta aseta geldituko dira.

Ta Jauna bilatzen dutenak, Bere goretsiyak abestuko dituzte:

Beren biyotzak beti beti biziko dira

28. Luŕbira guziya Jaunaz oroitu ta Beregana biuŕtuko da,

Ta sendi guztiyak auŕez auŕe guŕtuko dute.

29. Eŕidiyak Jaunarenak bai dira,

Ta Berak guztiyetan agintzen bai du.

30. Ludiko aberats guztiyak jan eta Bera guŕtuko dute:

Ilkoŕ guztiyak Bere auŕian belaunikatuko dira,

31. Ta nere anima beretzat biziko da

Ta nere ondorengoak Bera otseinduko (1) dute.

32. Jaunaren izena emango zayo datoŕen gizaldiyari

Eta Aren zuzentasuna zerubak dute adieraziko.

---

(1) Seŕvir.

Jaunak eratuta jaioko dan eŕiyari.

## JAUN - LEKURA IRISTEAN ESANGO DIRAN OTOITZAK

---

*Jauna eŕdi agiriyan jaŕi ondoren, esango dute:*

*Guziyak:* Aitaren...

Onespenduba... (asieran bezela).

—*Aizpak:* Jaun-leku onen auŕian piztu dezagun gure sinismena.

—Jauna; Zugan sinisten degu, baña geitu gure sinismena.

—Gogoratu dezagun Jaun-leku beaŕtsu au Jesus Jainko Gizonduaren etxia dala. Emen bizi da Jainko eta gure Ama eŕugabearen Semia, Belenien beaŕtsu jaio, Nazaretk'en apal bizi, gaxoak sendatu ilak piztu, negaŕ malkuak legoŕtu, obenak baŕkatu, ta oñazerik gogoŕenak eraman ondoren gurutzeko eriyotzaren bidez beŕterozi giñuzen Jesus maitea.

—Jauna, ¡emen bai ongi gaudela!

(83'gaŕen Eresiya)

2. ¡Mar̃tiztiyen Jauna, bai eder̃a dala Zure egontokiya!
3. ¡Nere anima Zuganako egar̃iz dago.
¡Kor̃putz animak Jainkoagan alaitzen zaizkit!
4. Txoriyak ar̃kitu zuan beretzat kaiola,
¡Baita ur̃tzapalak ere kabiya bere txitatxuak jar̃tzeko!
¡Zure oindiyak, (1) mar̃tiztiyen Jauna, nere Bakaldun eta nere Jainkoa!
5. Zorionekoak, Jauna, Zure etxian bizi diranak,
Beti beti goratuko zaituzte...
10. ¡O Jainko gure laguntzallea! Zure begiyak gugana ta Zure Gantzutuaren ar̃pegira itzuli itzatzu.
11 Zure etxe atariyan egun bat obe da,
Bestetan mil̃a baño.
Jainkoaren etxian azkeneko izatea nayago det, eta ez pekatariyakin bizi.
12. Jainkoak er̃ukiya ta egiya maite izan zitualako,

(1) Altar.

Emango dik bere laguntza ta zoriona.

13. Zuzen eta gaŕbi dabiltzanai
Ez diye ondasunik ukatuko.
O maŕtiztiyen Jaun eta Jainkoa,
Zorionekoa bere ustea Zugan jaŕtzen duan gizona!

Baña, Jauna, gure poza naigabe biuŕtu oi da, Zu aiñ ona ta aberatsa izanik, bakaŕik zaudela ikustean. ¿Zeŕgatik uzten ote zaitue bakaŕik? ¿Zure etxia, eŕi ontako etxe guztiyen aŕtean onena izan, eta nola ez dira etoŕtzen Bera ikustera? ¡O zenbat aŕigaŕizko gauza biltzen diran Jaun-leku onetan!. ¡Ze eramapen aundiya Jesusen aldetik!. ¡Kalbariyokua baño ere azkozaz lużeagoa!: An iru oŕduban bakaŕik egon zan, baña emen eunkidetan dago. Gizonen aldetik oŕdea, ¡zeŕ eskeŕgabekeri beltz itxusiya! Mendi itzal aŕtan baño bakaŕago uzten bai degu ¡Oŕdu ta egunak iñoŕtxo ere etoŕi gabe! Bidaztiak; begira Aita bakaŕtu onen naigabia bezelakorik bai ote dan, eta Bera maite ez duten semien eskeŕgabekeriya baño itxusiyagorik.

¡Jesusen Biyotz zaurituba! Zure eŕukiya aundiya da, ta gutzaz kupitu zaitez. Baŕka zaizkigutzu gure obenak.

—¡Aita maitagaŕiya baño bazteŕtuba! Zutzaz azturik daudenen oŕdez guk maite zaitugu:

—Guk bai, negaŕ egingo degu egiten ezdutenengatik, eskatu aoa irikitzen ezdutenengatik, goratu madarikatutzen zaituztenen oŕdañez, ta Zugana egundo etoŕi nai ezdutenen tokiyan, guk bizi nai degu Zure onduan.

—Ta Zure laguntzaz an-emen ibil̃iko gera Zure izena zabaldu ta Zure onginaya agertzen; eta biar bada belauniko eskatu ere bai Zu aŕtzera ta ikustera etoŕtzeko.

—¡Lagun iguzu, Jauna!

—¡Jesus ona! ¡Bide oyetan ikusi nai etzaituzten itxu asko aŕkituko ditugu noski!

—¡Ikusi dezatela, Jauna, ikusi dezatela!

—Zure erakutzi edeŕak entzun nai ezdituzten goŕ asko aŕkituko dira.

—Entzun dezatela, Jauna, en-

tzun dezatela.

—Ilak dauden biyotz asko.

—Piztu itzatzu, Jauna.

—Zure bidiak gaiztoai erakutziko diztegu, ta Zugana biuŕtuko dira.

—Jauna, iriki gure ezpañak,

—Eta zabalduko ditugu Zure gorapenak.

—Iguzu, Jauna, biyotz gaŕbi bat.

—Eta beŕitu gure asmo onak.

—Jesusen Biyotz doitsuba; Zugan jaŕtzen degu gure uste osoa.

—Ta Zure izenian botako ditugu sariak.

—Gure Ama eŕugabea ta Marien Bakalduna.

—Ematen ditugun oinkadak, eta esaten ditugun itz guziyak izan bitez Zure Semearen Biyotzaren gozagaŕi ta aztuta daukatenen onbiuŕtzerako.

—Jaun-lekuko Gotzonak, Gurutzeko Mariak, eta Juan Deun Ikasle leiala.

—Gure alde eskatu ezazute.

*Aita gurea, Agur Maria ta Gloriya.*

*Onespenduba...*

# Jaun-lekuari azken agur̃a

*Guztiyak:* Aitaren, eta Semiaren.. Onespenduba...

*Batek:* ¡Jauna, bai azkar̃ igaro dirala emen or̃dubak!

*Bestiak:* Zorionekuak Jaunaren etxian bizi diranak.

—Egiya da bai, Zure etxe atariyan egun bat obe dala bestetan mila baño.

—Esker̃ak ber̃iro ematen dizkitzugu, Zure Jaun-leku Kalbariyotako Maria egin gaituzulako. Onespenduba izan bedi gurekin aiñ ona dan Jauna.

—Esker̃ak, Biyotz onespenduba, Zurekin ain gutxik egon nai duten Jaun-lekuan lagun egiten utzi diguzulako.

—Zorionekuak Zure Biyotz atsekabetuba zer̃baitxo poztu badegu.

—Gu atsegiñez beterik gaude otoitz egiten ez dan tokiyan otoitztu, Jaunar̃tzen ez dan er̃iyan Jaunar̃tu, ta ainbeste seme esker̃gaizto

ta aztukoŕen aŕtean negaŕ egin ta Zutzatz itzeginda poztu zaitugulako.

—Gure poz aundiyagorako eman Zure Jaun-lekura deitu ta erakaŕi ditugunai utzegite guztiyen baŕkapena ta Zure adizkidetasunian irauteko laguntza.

—¡Jesusen Biyotz eŕukioŕa, bigundu itzatzu biyotz gogoŕak!

—Gauŕtik auŕera etoŕi bitez onunz umetxuak, ikastolan saŕtu ta iŕteterakuan onespendu itzatzun; beren gurasoak, lan egiten asi baño len, Zure laguntza aŕtzera; beaŕtsuak, beren nekiak arintzera; ta eŕiko guztiyak Zu aŕtu ta ikustera, pakia animarentzat, korputzarentzat osasuna ta beren bizitza guzirako zoriona iritxi dezaten. Ala izan dedila, ala izan dedila.

—Ta etoŕi nai ez badute,

—Guk agintzen dizugu ekaŕi aŕte ez gerala gelditukо.

—Badakizu, Jauna, bestiak etoŕi nai ez aŕen, gu Zure onduan egongo gerala.

—Jaunaŕtze, otoitz, lan on, neke ta gure asmo guztiyak Jaun-leku

ontara zuzenduko ditugu.

—Ez bilduŕik izan, etzaitugu bakaŕik utziko ta.

– Gure Ama eŕugabea, Maria deunak, Juan Ikasle leiala ta Jaun-leku ontako guŕtzaleak; bakaŕik aŕkitzen dezutenian, beŕitu gure Jesus maitiaren Biyotz atsekabetuari oraingo eskeintza au.

—Ta esan bein eta beŕiz, guztiyak uzten badute ere, gu bere Mariak, ez degula egundo bakaŕik utziko.

Aita guria...

Aguŕ Maria...

Gloriya...

- Baguaz, Jesusen Biyotz maitia, baguaz, ta iguzu Zure onespena gure etxetara osasuntzu eldu gaitezen.

—Ala izan dedila.

—Aitaren, eta Semiaren...

—Onespenduba ta goratuba izan bedi...

—Guazen pakian.

—Kŕistoren izenian

—Ala izan dedila.

## JAUNAŔTZIA, TA JAUN-LEKU-KALBARIYOTAKO IKUSTALDIYA EGUNERO ESKEINTZEKO OTOIṪZA.

---

Jesusen Biyotz guztiz maitagaŕiya; jakin det Jaun-leku oŕtan ozta-ozta aŕtu ta ikusten zaituztela. ¡Zurekin ez du iñoŕk ikuskizunik nai!.

¡Ze naigabe aundiya eman ditan beŕi oŕek!

¿Ez al da eŕi oŕtan aŕkitzen gaxo, goseti, atsekabetu, umezuŕtz, alaŕgun gajo, edo argal dagoanik? Zu zera ba, Jesus aldaretubaren Biyotz maitia, sendakin, pozkidatzale, adiskide, laguntzale, onguile ta guztiya.

¿Ez ote dakite? ¿Jakinda ere, ez ote dute zurekin ezeŕ nai?

¡Ze oñaze miña zure biyotzarentzat.

¡Ala da noski nere Jesus maitia! Miñ aundiya ematen dizu gau ta egun bakaŕik egotiak. Eskeŕak Aita baten eramapen guziya ta

onginai neuřigabea dezula; bestela itxedotez aspertuko ziñan onezkero.

**Nik nai nuke**

Jauna, erain eři ořtako bizidun guztiyen biyotz bařunpian Zure erakutzi edeřak, eta bana-bana esan ere bai guziyai: Anai, ¿baña ez al dakizu zure eliz nagusiko Jaun-lekuan Jesus bakařik dagoanik? Ez al dakizu? Atoz, ta erakutziko dizut.

**Nik nai nuke**

izan eři ořtako misiolariya, beřtan bizi diran guziyai diadařka adierazteko: Anaiak, anaiak; Jesus bakařik dago, ta ez du ořela egon nai, ez luke ere egon biař.

**Nik al banu**

iduki Jaun-leku bakoitzian biyotz bat Zuri lagun egiteko, ta mingañ bat Zu goretsi ta ařtzeko, ¡ura po-

za neria! Zure aurera juan eta esango nizuke: ¡Biyotz maitia, etzaude bakarik!

Baña. . .

---

Jauna, biyotz bat baizik ez daukat, ura kaxkar ta erukariya; ta mingañ bat, bera moldakaitz zikiña. ¿Biyak artu nai al dituzu Zuri lagun egiteko? Zuria naiz naizen guziya.

¡Jesusen biyotz bazterٔtuba! ¿uzten al didazu Jaun-leku oretara juanda, Zu artu ta ikustalditxo bat egiten? ¿Uzten al didazu gurtu ta otoitz egiten asnasa ta indara iritxi ditzatan? ¿Uzten al didazu?

¡Zorionekua ni, nere biyotz beartsua eskeñirik, Jesus laztana zerbait atseginduko banu! ¡Zer pozgariya neretzat, eskerbeltzekoen alde eskeark ematia, eskatzen ez dutenengatik eskatzia, negar egiten ez dutenen ordez negar malkuak ixurtzea, obendariyen ordañez ilduratzia, Jauna artzen ez dutenengatik egunero artu ta Bere etsaien alde maitatzia!

Nere Ama eŕugabe, Ikasle leial, Kalbariyoko Maria laguntzale Jesusen Nekaldi ta Jaun-leku-Kalbariyotako Gotzon guŕtzaleak; Zuen maitetasun irazekiyaren apuŕ bat eta mingañ liraña nai nituzke Jesus laztana biyotz guztiz maitatu ta beaŕ bezela goretsitzeko, Jaun-leku aŕtan irudipenez deitzean, entzun dezatan: ¡Oŕ daude *nereak*, utzi ez nautenak!

—Ala izan dedila.

—Ala izan dedila.

—Ala izan dedila.

*Otoitz au baŕkapenaz aberastua dago.*

---

Ondo litzake eskatzia orain Jaun-leku aŕtako apaizentzat alaitasuna ta indaŕa, Jaunaŕtzera ausaŕditzen ez diranentzat erabaki sendo bat, Jaun-lekuaz oroitzen ez diranentzat eskeŕ ona ta xamuŕtasuna, pekatuan itxutu ta oatuak daudenentzat aŕgiya ta biyotz beŕiyak eta guziyontzat maitetasunezko su biziya.

## OTOITZ LABUŔ TA EGOKIYAK MARIENTZAT

Guŕtu, eskeŕak eman, otoitz egin eta Maria eŕugabearekin batera poztu dezagun Jesus Aldaretuaren Biyotz Doitsu-Doitsuba.—(200 eguneko baŕkapenak).

Goretsiya ta maitatuba izan dedi Jesus Aldaretuaren Biyotz Doitsu-Doitsuba Jaun-leku guztiyetan mundubak dirauen arterańo.—Ala izpn dedila.—(300 egunekuak)

O Maria, Jesus Aldaretuaren Ama, Kŕistau eŕiyaren gorapen, Eleizaren alaitasun eta ludiko osasuna; gure alde otoitz egin eta piztu zazu guziyen biyotzetan Aldare oŕeganako jaiera xamurra, Jesus egunero aŕtzeko gai egin gaitezen. —(300 egunekuak aldi bakoitzian).

Jesusen Biyotz Aldaretuba; guganako onginaiez irazekirik zauden ezkero, sutu itzatzu gure biyotzak Zuganako maitetasunian.—(200 egunekuak XIII'gaŕen Leonek.)

Onespenduba izan bedi Jesus Aldaretubaren Biyotz Doitsu-Doitsuba.– (300 egunekuak, X'gaŕen Pio'k),

Jesusen Biyotz Aldaretuba; gutzaz eŕuki zaitez. - (300 egunekuak, X'gaŕen Pio'k).

Jesusen biyotz Aldaretuba; apaizen eredua, gure eŕukiya izan zazu.—(300 egunekuak, X'gaŕen Pio'k).

*Baŕkapen oek Gaŕbitokiko animai eskeñi litezkeanak dira.*

*Otoitz labuŕ oķtatik, batzuek bil̄era auŕean, eta bestiak amatzian esan litezke.*

JESUSEN BIYOTZ DOITSUBARI

GOZAGAŔI TXOŔTA

V. Dómine lábia mea apéries.

R. Et os meum annuntiávit laudem tuam.

V. Deus, in adjutorium méum inténde.

R. Dómine, ad adjuvándum me festina.

V. Gloria Patri, et Fílio et Spirítui Sáncto.
R. Sicut erat in princípio, et nunc et sémper et in sæcula sæculórum. Amen.

ESKEINTZA

¡Aldareko Jesusen Biyotz gozo gozoa! (Onelako) Jaun-lekuan bakarik, eta gure ta lurbira guziko obenagatik ain bidegabetua zaudela ikustian, naigabez ta damuz urturik gaude; ta ordañez eskeintzen dizugu gozagari txorta au. Artu gure Jesus, zerutarak eta lureko kristau zintzoak egiten dizkitzutenaz batera. Ala izan dedila.

I.

¡Aldareko Jesusen Biyotz guziz maitagariya! (Onelako) Jaun - lekuan azturik, eta bai gure, bai Europa guziko obenagatik ain bidegabetua ikustia, damu degu biziro.
Ordañez eskeintzen dizugu Andre Mariarekin batera gure txorta onen lenengo zatiya, gozagari bat eta amar goretsi bialiyaz.

V. Bizi bedi Jesus.
R. Il bedi pecatuba.

*Bein.*

V. Goretsiya izan bedi beti.
R. Jesusen Biyotz aldaretuba.

*Amar aldiz.*

V. ¡Jesusen Biyotz gaŕbiya! Aŕen eta aŕen.
R. Ez dedila iñoŕ pekatuban bizi ta il.

*Bein.*

II.

¡Jesus Aldaretuaren Biyotz guziz maitagaŕiya! (Onelako) Jaunlekuan azturik, eta bai gure, bai Asia guziko obenagatik ain bidegabetua ikustia, damu degu biziro.

Oŕdañez eskeintzen dizugu Goŕtzonen bederatzi taldiakin batera gure txoŕta onen bigaŕen zatiya, gozagaŕi bat eta amaŕ goretsi bialiyaz.

V. Bizi bedi Jesus.
R. Il bedi pekatuba.

*Bein.*

V. Goretsiya izan bedi beti.
R. Jesusen Biyotz Aldaretuba.

*Amar aldiz.*

V. ¡Jesusen Biyotz gaŕbiya! Aŕen eta aŕen.
R. Ez dedila iñoŕ pekatuan bizi ta il.

*Bein.*

III.

¡Jesus Aldaretuaren Biyotz guziz maitagaŕiya! (Onelako) Jaun-lekuan azturik, eta bai gure, bai Afrika guziko obenagatik ain bide gabetua ikustea, damu degu biziro.

Oŕdañez eskeintzen dizugu Bialkin eta odolixurtzaliakin batera gure txoŕta onen irugaŕen zatiya, gozagaŕi bat eta amaŕ goretsi bialiyaz.

V. Bizi bedi Jesus.
R. Il bedi pekatuba.

*Bein.*

V. Goretsiya izan bedi beti.
R. Jesusen Biyotz Aldaretuba.

*Amar aldiz.*

V. ¡Jesusen Biyotz gaŕbiya! Aŕen eta aŕen.
R. Ez dedila iñor pekatuban bizi ta il.

*Bein.*

IV.

¡Jesus Aldaretuaren Biyotz guziz maitagaŕiya! (Onelako) Jaunlekuan azturik, eta bai gure, bai Amerika guziko obenagatik ain bidegabetua ikustia, damu degu biziro.

Oŕdañez eskeintzen dizugu Aitoŕle ta Neskutz Deunakin batera gure txoŕta onen laugaŕen zatiya, gozagaŕi bat eta amaŕ goretsi bialiyaz.

V. Bizi bedi Jesus.
R. Il bedi pekatuba.

*Bein.*

V. Goretsiya izan bedi beti.
R. Jesusen Biyotz Aldaretuba.

*Amar aldiz.*

V. ¡Jesusen Biyotz gaŕbiya! Aŕen eta aŕen.
R. Ez dedila iñoŕ pekatuban bizi ta il.

*Bein.*

V.

¡Jesus Aldaretuaren Biyotz guziz maitagaŕiya! (Onelako) Jaun-

lekuan azturik, eta bai gure, bai Ozeani guziko obenagatik ain bidegabetua ikustia, damu degu biziro.

Oŕdañez eskeintzen dizugu Zerutaŕ ta luŕeko kŕistau zintzoakin batera gure txoŕta onen bostgaŕen zatiya, gozagaŕi bat eta amaŕ goretsi bialiyaz.

V. Bizi bedi Jesus.
R. Il̄ bedi pekatuba.

*Bein.*

V. Goretsiya izan bedi beti
R. Jesusen Biyotz Aldaretuba.

*Amar aldiz.*

V. Jesusen Biyotz gaŕbiya! Aŕen eta aŕen.
R. Ez dedil̄a iñor pekatuban bizi ta il̄.

*Bein.*

¡Jesus Aldaretuaren Jainkozko Biyotza! Zerutaŕ ta luŕbirako kŕistau zintzoakin batera goretsi zaitugun ezkero, izaki guziyen Bakalduntzat aitoŕtzen zaitugu. Agindu ba, gure biyotz eta gauza guziyetan; Zu bakaŕik eta beti beti goretsitzeko. Ala izan dedil̄a.

OSTI DOITSUBARI
ORDAINCAŔI EGINTZA

¡Aldareko Jesus gozo gozo, Bakaldunen Bakaldun eta Jaun guztiyen Jauna. Ara emen gu Zure auŕian belauniko ta Osti Doitsuari begira. Auxe da gure biyotzen biyotza, gure begiyen aŕgiya ta gure guŕtze, goretsi ta gozagaŕiyen gai goitikakua. Zerana zeralako. askengabeko ontasuna, Zu bidegabetua damu degu, ez degu beŕiz obenik egingo; gutzaz eŕukitu ta kupitu, Jauna.

Zure maitetasunaren su doitsubak piztu bitza gure biyotzak, aŕgitu gure adimenak eta gaŕbitu gure españak; Osti aguŕgaŕi oŕen auŕka batez ere botatzen diran birau beltzen oŕdañaz, Zeruko Gotzon eta luŕeko kristau zintzuakin batera Zure goretsiyak abestu ditzagun. Ala izan dedila.

Ta Zuk, Andre Maria eta gure Ama eŕugabea, sinismenaren adigaŕi apal au ontzat aŕtubaz, la-

gun zaiguzu Zeruko Gotzon eta Zorionekuakin batera jaieraz esaten:

¡Osti gaŕbi, Osti Deun, Osti eŕugabea!

(*Erantzupena*) Onespenduba ta goretsiya izan zaitez beti beti. *(9 aldiz).*

(v) Guŕtu ta goretsi dezagun Jauna luŕbirako Jaun-leku guztiyetan.

*(Erantzupena)* Ta irudimenez beren auŕian belaunikaturik, eten gabe goretsi dezagun.

*(Jaŕaitzen da)* Osti gaŕbi, Osti Deun...

*(Zuzendariyak)* Onespenduba ta goretsiya izan zaitez beti beti. (*Beste 9 aldiz).*

(v) Guŕtu ta goretsi dezagun Jauna izendatu diguten Jaun-lekuan.

(*Erantzupena)* Ta irudimenez bere auŕian belaunikaturik, eten gabe goretsi dezagun.

*(Zuzendariyak)* Osti gaŕbi...

(*Erantzupena)* Onespenduba... (*Beste 9 aldiz).*

¡Osti osasungaŕiya! Zu zera zeruko atea, ta Zeruba bera ere Zu-

gan dago; ara emen gu atsekabeturik eta etsaien atsapaŕetan eroŕtzeko zoriyan; iguzu berai erasotzeko indaŕa ta garaitzeko laguntza. (*Guztiyak*) Ala izan dedila.

Guŕtzen zaitugu Osti Doitsu-Doitsu, ogi bizi ta Gotzonen jakiya.

(*Guztiyak*) ¡Bai gure Salbalea! Zu guŕtu, Zugan sinistu, Zugan gure uste osoa jaŕi ta gauza guztiyen gañ Zu maite zaitugu.

¡O Jesukristo bera aŕtzen dan bazkari doitsuba! Zure bidez beŕitzen da bere Nekaldiyaren oroipena, baita gure adimena zeruaŕgiz bete ta betiko zorionaren ezagunbidia eman ere.

(v) Zeruko ogiya jaten eman ziñiezun, Jauna.

(*Gutziyak*) Baŕungo atsegiñ guziyak berekin dauzkana.

## OTOITZA

¡Jauna! Zere Nekaldiyaren oroipena Sakramentu aŕigaŕiyan utzi ziguzun ezkero, Zure goŕputz odolak guŕtzeko laguntza iguzu, Erospeneko irabaziyak beti nabaitu di-

tzagun. Aita Jainko ta Espiritu Doitsu Jainkoarekin batera beti bizi ta Agintari zeranagatik.

(*Guziyak*) Ala izan dedila.

Onespenduba ta goretsiya izan bedi beti Aldareko Sakramentu Doitsu-Doitsu ta Jainkozkoa.

Onespenduba ta goretsiya izan bedi beti Zorioneko Andre Mariaren Sorkunde garbi garbiya.
Ala izan dedila.

Jaunaren pakia ta Espiritu Doitsuaren gozotasuna izan bitez gurekiñ beti. Ala izan dedila.

*Otoitz au esaten dutenak 200 eguneko barkapenak irabazten dituzte.*

## ORDU BETE

## JAUN-LEKUAREN AURIAN

¿Lureko ordu bat Zeruko beste ordu bat nola biurtu liteken erakustia nai al dezu?

Jaun-leku oren aurian belauniko jarririk, irudimenez zoaz Maria bezela lagun egitera dagokizun beste artara.

## Ordu ortan itxedoten dana

Begira an goien Zeruba, Jainko ta Zorionekuen uri edeŕa; bian leiza zulo izugaŕiya, oñaze tokiya, zigoŕtatu edo gaŕbitzeko; zure inguruan ludi zabala bere gizon on, gaizto ta nolabaitekoakin, beren onoimen eta oitura txaŕakin, beren atsegin labuŕ ta neke luziakin; zure auŕian Jaun-lekua, beaŕtsu edo aberatsa, gaŕbi edo zikiña; baño bere baŕunen Jesus bat, *Jainko* aundi, neuŕigabe, zuzen, guzialduna, ta gizonen semeen aŕtean *Gizonik* on, edeŕ, gozo ta maitagaŕiyena dagoan Jaun-lekua.

¡Zenbat mirari egiten diran oŕ bere *Aŕotz* orotakoa eskutaturik egoteko! Dan bezelakua ageŕtuko balitz; ¿noŕk esan zure begiyak ikusi, zure belaŕiyak entzun, zure biyotzak eta zure izaki guziyak nabaituko luketena?

Ta ori guziya ikusi ondoren, begira zere buruba ainbesteko aunditasunaren auŕean aiñ txiki-

ya, baña maitetasun aiñ apaldubak ainbeste aundituba.

¿Nai dezu jakin izaki bakoitzak ordu ortan itxedoten duana?

## Zeruban

sartzia uste dute Garbitokikoak, mundutarak poza ta beren nekien laburpena iristia, umetxuak indara, gaztiak sendotasuna, atsekabetuak alaitasuna, bidegalduak argiya, obendariyak onbiurtzia ta guziyok garbitasun, apaltasun, zintzotasun, maitetasun eta beste ainbeste onoimen. Ta ¿zeorek¿ ¿ez al dezu ezer itxedonbear? Begira zeren bearean zauden; zure anima... zure korputza... zure sendiya... zu re lagunak .. Oek guztiyak zerbait artzia uste dute. *Baña batez ere* Jaun leku ortako Jesus, *ordu oren* zai dago. Bakarik, Jaun-leku askotan osoro aztuta arkitzen da; ta ¡lagunak nai ditu! Gogaiturik dago, ez iñork begiratu, ez iñor urreratu, ez ezer eskatu ta askok gorotatzen dutelako; ta lagunen ega-

ŕi aundiya dauka, Bera ikusi, Beragana joan, zeŕbait eskatu ta maitatuko dutenen egaŕiya.

*¡Jesusen Biyotza zure zai dago Jaun-lekuan!* Itz oek biaŕ bezela uleŕtzeko eska zayozu aŕgiya zere Gotzon Zaindariyari. Jakob'en putzu zulo onduan Samaritaŕaren zai egon zan antzera, eskeŕgaiztokoen aŕtian ibiltzen nekatuta zure zai dago; Berak ezkeintzen ziyon uŕ biziyaren oŕdez ura eskatzen. ¡Aŕigaŕizko gauza! ¡Jesus zure zai, ta maitetasunezko ura eskatzen!

¡Zenbat itxedon liteken zure oŕdu oŕtan!

## ¿Nola?

Leŕo oek geldi-geldi irakuŕi ta Jesus Aldaretuaren auŕian sinismena piztu ondoren, egin beaŕ dezuna da

*Lenbizi:* Zeruko Gotzonakin batera Jauna guŕtu.

*Bigaŕen:* Goizpeŕ edo Ebanjeliyua gogaldu, irakuŕgairik onena dalako. Ta egiz; Goizpeŕak dakaŕ

Jesukŕistoren bizitza; ta bein Bere jaiotza, bein Ejitorako igesa, gauŕ Jetsemani baratzako estuasun laŕitasunak, biyaŕ Nekaldiko oñaze gogoŕak gogoratu ditzakezu.

Goizpeŕak azaltzen dizkigu Jesus'ek egindako mirariyak; nola Jerikoko itxubari ikusmena, itzgabiai mingaña, goŕai entzumena, gaxuai osasuna, il̃ai biziya eman zien; eta Jaun ura bera oŕduko bere eskubide, eŕuki ta Biyotz xamuŕarekin auŕian daukazula oroitu.

Goizpeŕak ageŕtzen ditu Jesus'ek esandako ipuiak, egindako aginduak, iragaŕitako esetziyak; eta Jaun-lekutik bakoitzari era aŕtan itz egingo baliyo bezela oroituta, on asko atera genezake.

Azkenez, Goizpeŕak azaltzen dizkigu ere Jesus'en onoimen aŕigaŕiyak, Bere apaltasun, gaŕbitasun, ilduratze, onginai ta beste ainbeste. Ta ¿zer toki obeagorik gauza oek gogoratzeko Jaun-lekua baño?

*Irugaŕen:* Ixil̃ik egon bai, baña gogoz, biyotzez ta aoz itz eginda

gero ixillik egon, Berak itz egin dezan: ¡Ainbeste dauka esateko! ¡Alako gogua Bere bařuna azaltzeko! ¡Ain egaři biziya guri erakusteko! Bai, ixilik egon; eta bere otza, ezti aborazka baño gozoagoa izango zazu.

*Laugařen:* Eskatu; baña ¿zeñengatik? Lenago esan dizutan bezela, zure ořduaren zai daudenen alde. Eskatu, ta asko eskatu; iristeko garai onena orixe da-ta; batez ere zure eřiko obendari ta Jaun-lekura uřeratu nai ez, edo juatian bidegabetu baizik egiten ez dutenen alde eskatu; ta bakařik igarotzen dituan ořduen ořdañez, eskeñi zayozu zure ořdu ori.

## Azkenengo unetan

zure buru banaketa ta oztasunaren bařkapena eskatuta gero, eskeřak eman lagun egiten utzi dizulako.

OAŘA: Jaun-leku batek Maria asko dituanian, egun guztiyan gurtu bezate Jauna bakařik utzi gabe.

## EŔOSARIYO DEUNAREN BIDEZ, JESUSEN BIYOTZ DOITSUARI JAUN-LEKUAN LAGUN EGITEKO ERA

Eŕosariyoko otoitz gaiak gogoratzeko era beŕi au askori erakutzi diyet, eta Mariai ere azaldu beaŕ dizuet.

*Lenbizi:* Iruditu Andŕe Maria bere Seme Doitsu-Doitsuaren onduan dagoala; onen Biyotza, gogoratzera zuazten otoitz gaiaren Egile bezela erakutziyaz.

*Bigaŕen:* Damu biziz esan «Nere Jesukŕisto Jauna»...

*Irugaŕen:* Amaŕeko bakoitza astian, gogoratu Jesusen Biyotz maitearen Erakusle, Emale ta Beragana juateko Zuzendari, Andŕe Maria dala.

## EŔOSARIYOKO OTOITZ GAIAK

**Pozezkoak**

Astelen eta Ostegunetan

1'goa Jesusen Biyotz Apala.
2'na Jesusen Biyotz Eragilea.

3'na Jesusen Biyotz Emalea.

4'na Jesusen Biyotz Gaŕbitzalea.

5'na Jesusen Biyotz Esanegilea.

Amaŕeko bakoitzian dagokiyon otoitz-gaia gogoratzen pitin batean egon; eta gero Aita gurea, amaŕ Aguŕ Mari ta Gloriak begirapenez esan gogoa banatu gabe eskatubaz: Nere Ama laztana; maitetasun ori Erakutzi, maitetasun ori Eman, maitetasun oŕegana Zuzendu nazazu.

## Atsekabezkoak

Astearte ta Ostiraletan

1'goa Jesusen Biyotz Bakaŕtutuba.

2'na Jesusen Biyotz Minberatuba.

3'na Jesusen Biyotz Isekatuba.

4'na Jesusen Biyotz Oinperatuba.

5'na Jesusen Biyotz Opalduba.

Asteazken, Larunbat eta Igandietan.

1'goa Jesusen Biyotz Zeru-Eramalea.
2'na Jesusen Biyotz Deun Egilea.
3'na Jesusen Biyotz gure Ama maite ustelgearen Zaitzalea.
4'na Jesusen Biyotz gure Ama Mariaren Zorion Egilea.
5'na Jesusen Biyotz gure Zorion Egilea.

Erosariyo Deuna onela esatia zala dirudi begiratu batian; baña esaten asi, ta ikusiko dezute zeiñ eraxa dan.

## GURUTZ-BIDEA JAUN-LEKU KALBARIYOKO MARIA TA JOAN DEUNAREN IKASLEENTZAT.

Oneraspen guziyetatik bidezko ta egokiyena Marientzat Gurutzbidea da; emen lenbiziko Mariak sortu ta agertu bai ziran. Jetsema-

ni baratzatik Kalbariyoko mendi itzalera Mariak lagundu zioten Jesusi, eta Gurutzearen oñetan ere Jesusen Ama Mariarekin batera antxe egon ziran.

Esan ba al dezuen guziyan Gurutz-bidea, biyotza sendotu ta Maria onak izateko.

## Gurutz-bide Deuna

Gurutze Santuaren..
Nere Jesukŕisto Jauna...

## Eskeintza

(Jaun-lekuaren aurian)

¡Jaun guztiz altsuba! Zure Seme bakar gure Jesus laztanaren Nekaldiko oroipen biziya Sakramentu aguŕgaŕi onetan utzi zenduan ezkero, Bere lagun eta gozagaŕi izateko itza eman degunoi Aŕen oñazeak gogoratzeko laguntza iguzu; emendik auŕera aginte deunak obeto bete, Biyotz maite ori zeŕbait atsegindu ta betiko zorio-

na iritxi dezagun. Ala izan dedila.

¡Gure Ama oŕbangabe. Neketako Bakaldun eta Maria eta Ikasle leialen Erakuslea! Jaun-leku au Kalbariyo biuŕtua daukate eskeŕgaiztoko gizonak; eta Zurekin batian ementxe negaŕ egin nai degu. Kalbariyoko Maria zintzo, leial, eskeŕ onekoak, eta Jesusen Ikasle maite ta gure Zaindari Juan Deuna; Kalbariyo bidian guri lagundu.

Gurutz-bide au eskeintzen dizut bakaŕturik dauden Jaun-lekuen, batez ere neri izendatutakoaren gozagaŕi ta baŕkapenak irabazteko asmoz.

## Lenengo egonlekua

V. Guŕtzen zaitut, Jesusen Biyotz Aldaretuba, ta onespendutzen zaitut.

R. Zure Gurutzeaz gizona beŕterosi, ta Zure Goŕputz-odolaz gure animak janaritzen dituzulako. (*Egonleku bakoitzaren asieran esan biaŕ da.*)

¡O Jesus maitea! Zure etsaien goŕoto ta ikusi eziñagatik, baita

Zure adiskideen izu ikaragatik ere. Pilato'k Zu iltzeko eman zuan epaia gogoz aŕtu, ta orain Jaun-leku onetan bakaŕik niganako maitetasunaz zaudelako, eŕukitu.

Ta Zuk, Mariaren Biyotz gozoa, Jesus Gurutzetu ta Aldaretuba ezagutu ta aitoŕtzeko aŕgiya ta indaŕa neri eman, eta zaitu nazazu.

(*Aita guria, Aguŕ Maria ta Gloria*).

V. Jesusen Biyotz Aldaretuba.
R. Gutzaz eŕukitu zaitez.

(*300 eguneko baŕkapenak*).

Zure Amaren antzera maitalariyak,
Zure Mariak bezela leialak,
Izan nai degu Jesus,
Zure auŕian emen gaudenak.

(*Egonleku bakoitzaren azkenean esan beaŕ da*).

**Bigaŕen egonlekua**

¡O Jesus maitea! Nere obenen baŕkapenerako Gurutze astuna soŕbaldan aŕtu, ta ni bakaŕik ez egoteaŕen Jaun-leku oŕtan iñoŕtxo gabe zaudelako, eŕukitu.

Ta Zuk, Mariaren Biyotz gozoa, eskeŕbeltzekoen alde eskeŕdun izaten neri erakutzi, ta zaitu nazazu.

**Irugaŕen egonlekua**

¡O Jesus maitea! Ni jaikitzeaŕen Zu luŕera amildu, ta ni ez eroŕtzeagatik Zuk Jaun-leku oŕtan eusten didazulako, eŕukitu.

Ta Zuk, Mariaren Biyotz gozoa, amak bere semetxoak bezela, ni eskutik eraman, eta zaitu nazazu.

**Laugaŕen egonlekua**

¡O Jesus laztana! Zure Ama eŕugabeak, bai Zere Nekaldiyan, eta bai Jaun-leku onetan guŕtu ta maitetasun gaŕbi gaŕbiya ageŕtzen dizulako, eŕukitu.

Ta Zuk, Mariaren Biyotz gozoa, Jesus'en auŕian begirapenez egoten neri erakutzi, ta zaitu nazazu.

**Bostgaŕen egonlekua**

¡O Jesus laztana! Zirineotaŕa Gurutzia eramateko, ta Mariak

Jaun leku bakarŕtuen laguntzale izateko aŕtu gaituzulako, eŕukitu.

Ta Zuk, Mariaren Biyotz gozoa, zeŕegin xamuŕ onetan nere Erakusle izan, eta zaitu nazazu.

### Seigaŕen engonlekua

¡O Jesus maitea! Beronikak txistu, autz eta odol kutsubak Zuri kentzen ageŕtu zuan maitetasun beroa, ta guk Jaun-lekuak txukuntzen daukagun aŕdura begi onez ikusten dituzulako, eŕukitu.

Ta Zuk, Mariaren Biyotz gozoa, nere anima osoro gaŕbitu, Jesus ikustera datoŕkiyonean, Bere soñekuak obenez zikindu ez ditzan, eta zaitu nazazu.

### Zazpigaŕen egonlekua

¡O Jesus laztana! Nere pekatu-beŕitzeak oŕdaintzeko bigaŕen aldiz luŕera amildu, ta Jaunaŕtzetxaŕ egilearen biyotzian Zure asaŕea ezaŕi gabe eroŕtzen zeralako, eŕukitu.

Ta Zuk, Mariaren Biyotz gozoa,

anima gaizto donauskoŕak bigundu itzatzu, ta ni ere zaitu.

### Zortzigaŕen egonlekua

¡O Jesus maitea! Zure Nekaldiko oñaze gogoŕen aŕtean eta Jaunleku bakaŕtuetan negaŕ egiten duten Marientzat itz gozo xamuŕak dituzulako, eŕukitu.

Ta Zuk, Mariaren Biyotz gozoa, nere naigabeaz azturik, Jesusenak baizik ez ditzatala gogoratu, ta zaitu nazazu.

### Bederatzigaŕen egonlekua

¡O Jesus maitea! Gaiztoak goŕotatu ta onak utzi ziñuztelako irugaŕen aldiz luŕera erori, ta Jaunlekuan ainbeste eskeŕgabekeri ikusi aŕen, Zure onginai neuŕigabe ta azkengabeko eramapenari eskeŕak aspeŕtzen etzeralako, eŕukitu.

Ta Zuk, Mariaren Biyotz gozoa, Jainko ta uŕkoaganako maitetasun irazeki bat neri eman, eta zaitu nazazu.

### Amarǵaren egonlekua

¡O Jesus maitea! Kalbariyoan jantziyak erantzirik, eta Jaun-leku askotan beaŕtsurik eŕukaŕiyena baño beaŕtsuago zaudelako, eŕukitu.

Ta Zuk, Mariaren Biyotz gozoa, nere anima onoitzezko lora edeŕez jazten erakutsi, ta zaitu nazazu.

### Amaikagaŕen egonlekua

¡Oh Jesus laztana! Nere azkatasun geiegi, lasaikeri ta aŕokeriyak eragiñazi dizkidaten obenak kentzeko, Gurutzian josirik eta Jaunlekuan itxita aŕkitzen zeralako, eŕukitu.

Ta Zuk, Mariaren Biyotz gozoa, nere asmo gogoak Zure Semearekin bat egin, eta zaitu nazazu.

### Amabigaŕen egonlekua

¡O Jesus maitea! Neri zure Biyotz aguŕgaŕiyaren eraiḻe oni biziya emateaŕen, Zuria bein egiz Kalba-

riyuan, eta Mezatan asko bideŕ iduriz galtzen dezulako, eŕukitu.

Ta Zuk, Mariaren Biyotz gozoa, Jainko. uŕko ta etsaienganako ere maitetasun bizi bizi bat neri ezaŕi, ta zaitu nazazu.

### Amairugaren egonlekua

¡O Jesus laztana! Il ondoren Zure Amak bere altzoan aŕtu, ta ila bezela zauden Jaun lekuetan Berak poztutzen zaitualako; atzegin aundiz nere Bakalduntzat ezagutu ta aitoŕtzen zaitut, eta nitzaz eŕukitu.

Ta Zuk, Mariaren Biyotz gozo ta nere Bakaldun opaldu ta oinperatuaren jaŕgoi edeŕa, zaitu nazazu.

### Amalaugaren egonlekua

¡O Jesus laztana! Guziyak obian, eta Zure Maŕia leial zintzoak ez bestiak, Jaun-lekuan bakaŕik uzten zaituelako, eŕukitu.

Ta Zuk, Mariaren Biyotz gozoa, indazu mundu ta nere griña gaiz-

toentzat il eta Maitetasun maitatugabea ta bakaŕtua bakaŕik maite izan, poztu ta Berari beti lagun egiteko indaŕa. Ala izan dedila.

## Jaun-lekuaren aurian esateko

### AZKEN OTOITZA.

¡O Jesus maitea! Zure Nekaldi gogoŕa gogoratu ta Jaun-leku oŕtan bakaŕik zaudela ikustean, naigabez ta damuz eŕkiturik natoŕ Zugana; ta apaltasun eta begirapenez, baño biyotz guztiz ezkatzen dizut kupida Zure eraile izan naizen onentzat, eŕukiya Zutzaz azturik Jaun-lekuko aberastasun ugariyak aŕtu nai ez dituenentzat, eŕukiya Gaŕbitokiko animentzat eta batez ere Zure neke miñak bereak egin eta lagun egiteko aŕdura daukaten guziyentzat.

Nere Ama gaŕbi gaŕbi, Maria guziyen Eŕegiñ eta Erakuslea, Juan Ikasle maitia ta Kalbariyoko Maria zintzoak: ezaŕi nere biyo-

tzian Jesusen Biyotzaganako maitetasun bizi bizi bat Bere Maria orain, gero eta beti izateko. Ala izan dedila.

*Orain gure Jesus maitiaren zauriyen izenean bost Aita gure, Aguŕ Mari ta Gloria esaten dira, ta beste bat Aita Santuaren alde baŕkapenak irabazteko.*

MARIAK BEREN JAUN-LEKUEN
EṘITAN EGITEN DITUZTEN
IBIL-DEUNETARAKO.

## Eskeintza

¡Osti Doitsuban egiz ta benaz zauden Biyotz maite, gure Jaunlekuaren eraman aundiko Aŕotz, eŕi ontako bizidunik on ta gutxiyen maitatuba, eskeŕgaiztoko seme askok utzi zaituen Aita gozo ta gizonik okeŕena baño geyago goŕotutako Jainko guzialtsua! Eskeŕak ta eskeŕ gaŕbi beruak ematen dizkitzugu Zure biyotz on, aberats ta maitagaŕiya ezagutzeko garaia eldu zaigulako, baita Bera oŕdaindu ta gozatzeko ere. Le-

nago ez ezagutu ta maitatugabeko damuz gaude; baña emendik auŕera egunero Zu aŕtu ta ikustera etoŕiko gerala itza ematen dizugu. Bai Jesus maite maitea; eŕi ontako kaŕika, enparantza, ikastola, etxe ta guzi guziyon Jaun eta Jabe Zu izatia da gure naya, Zu bakaŕik gure Bakaldun eta Agintari orain eta beti. Ala izan dedila.

## MARIAK BEREN JAUN-LEKUARI SAŔITAN LAGUN EGITEKO ERA EŔAXA

---

Esan asko aldiz, batez ere lanen bat asterakoan.

*Lan onek lagun bezaio nere Jaunlekuari.*

Jesusen Biyotz Doitsu-Doitsuba; Zuretzat guztiya ((*300 eguneko baŕkapenak*).

## Jaun-lekutik itzulerakuan

Esan liteke *Te Deum* edo *Magnificat*

Te Deum laudámus: * te Dóminum confitémur.
Te ætérnum Patrem * omnis terra venerátur.
Tibi omnes Angeli, * tibi cœli, et univérsæ potestátes.
Tibi Chérubim et Séraphim, * incessábili voce proclámant:
Sanctus, sanctus, sanctus, * Dóminus Deus Sábaoth.
Pleni sunt cœli et terra * majestátis gloriæ tuæ.
Te gloriósus * Apostolórum chorus.
Te prophetárum * laudábilis númerus.
Te Mártyrum candidátus * láudat exércitus.
Te per orbem terrárum * sancta confitétur Ecclésia.
Patrem * inménsæ majestátis.
Venerándum tuum verum * et únicum Filium.

Sanctum quoque * Paráclitum Spíritum.

Tu Rex * glóriæ, Christe.

Tu, Patris*sempitérnus es Fílius.

Tu ad liberándum susceptúrus hónminen, * non horruísti Vírgiuis úterum.

Tu, devicto mortis acúleo * aperuísti credéntibus regna cœlórum.

Tu ad déxteram Dei sedes, * in glória Patris.

Judex créderis * esse ventúrus.

Te ergo, quæsumus; tuis fámulis súbveni * (*belaunikatu*), quos pretióso sánguine redemísti (*zutitu*).

Ætérna fac cum sanctis tuis * in glória numerári.

Salvum fac pópulum tuum, Dómine, * et benedic hæreditátis tuæ.

Et rege eos, * et extólle illos usque iu ætérnum.

Per síngulos dies * benedícimus te.

Et laudámus nomen tuum in sæculum * et in sæculum sæculi.

Dignáre, Dómine, die isto * sine peccáto nos custodíre.

Miserére nostri, Dómine: * mise-

rére nostri.

Fiat misericórdia tua, Dómine super nos, * quemádmodum sperávimus in te.

In te, Dómine, sperávi: * non confúndar in ætérnun.

CÁNTICUM BEATÆ MARÍÆ VÍRGINIS

---

Magníficat * ánima mea Dóminum.

Et exsultávit spíritus meus * in Deo, salutári meo.

Quia respéxit humilitátem ancíllæ suæ: * ecce enim ex koc beátam me dicent omnes generatiónes.

Quia fecit mihi magna qui potens est: * et sanctum nomem ejus.

Et misericordia ejus a progénie in progénies * timéntibus eum.

Fecit poténtiam in bráchio suo: * dispersit supérbos mente cordis sui.

Depósuit poténtes de sede, * et exaltávit húmiles

Esuriéntes implevit bonis,* et dívites dimísit inánes.

Suscépti Israel puérum suum'i

recordátus risericórdíæ suæ.

Sicut locútus est ad patres nostros,* Abraham, et sémini ejus nn sæcula.

Glória Patri.

## Jauna agiriyan jartzeko ereserkiya

Pange, língua, gloriósi
Córporis mystérium,
Sanguinísque pretiósi,
Quem in mundi prétium,
Fructus ventris generósi
Rex effúdit géntium.
Nobis datus, nobis natus
Ex intácta Vírgine,
Et in mundo conversátus,
Sparso Verbi sémine,
Sui moras incolátus
Miro cláusit órdine.
In suprémæ nocte cœnæ
Recúmbens cum frátribus,
Observáta lege plene
Cibis in legálibus,
Cibum turbæ duodenæ
Se dat suis mánibus.
Verbum caro, panem verum
Verbo crrnem éfficit:

Fitqre Sanguis Christi merum,
Et si sensus déffìcit:
Ad firmándum cor sincérum
Sola fides súfficit.

(*Belauniko.*)

Tantum ergo Sacraméntum
Venerémur cérnui:
Et ansíquum documéntum
Novo cedat rítui:
Præstet fides supleméntum
Sénsuum defétui.

Genitóri, Genitóque
Lrus et juvilátio:
Salus, honor, virtus quoque
Sit et benedíctio.
Procedénti ab utróque
Compar sit laudátio. Amen.

Panem de cœlo præstitisti eis.
Omne delectaméntum in se habén tem.

116'gaíen eresiya.

Laudáte Dóminum omnes Gentes: Laudáte eum omnes pópuli:
Quóniam confirmáte est super nos misericórdia ejus: et véritas Dómini manet in ætérnum. Gloria Patri...
Sicut erat...

## MARIEN EZAGUNBIDEA JARTZEKO OTOITZ-ABESTIYAK

Zuzendariya jantzi ta Aldare aurera datorenian, Maria guziyak bi talde egin, eta txandaka abestuko dute.

Zuzendariyak. Inveni.

83'garen eresiya. (1)




(1) Euzkeraz 17-garen oriyan dago

1. C.—Etenim passer invénit sibi domum: et turtur nidum sibi, ubi ponat pullos suos.

2. C.—Altária tua Dómine virtútum: Rex meus, et Deus meus.

1. C Beáti qui hábitont in domo tua, Dómine: in sæcula sæculorum laudábunt te.

2. C.—Beátus vir cujus est auxílium abs te: ascensiónes in corde suo dispósuit: in valle lacymárum, in loco quem pósuit.

1. C.— Etenim benedictiónem dabit legislátor, ibuut de virtúte in virtútem: vidébitur Deus deórum in Siom.

2. C. - Dómine, Deus virtútum, exáudi oratiónem meam: áuribus percipe, Deus Jacob.

1. C.- Protéctor noster, áspice Deus: et réspice in fáeiem Chisti tui.

2. C.- Quia mélior est dies una in átriis tuis· super mília.

1. C. -Elégi abjéctus esse in domo Dei mei: magis quam habitáre in tabernáculis peccatórum.

2. C.—Quia misericórdiam et veritátem díligit Deus: grátiam et

glóriam dabit Dóminus.

1. Non privábit bonis eos qui ámbulat in innocéntia: Dómine virtútum, beátus homo qui sperat in te. Gloria Patri...

*Abeslariyak:* Ivéni quem díligit ánima mea ténui eum nec dimíttam.

*Zuzendariyak:* Ora pro nobis, immaculáta María Virgo dolorossísima.

*Guziyak:* Ut digni efficiámur promissiónibus Cordis Christi.

*Zuzendariyak:* Ora pro nobis Sancte Joannes, discípule fidélis.

*Guziyak:* Ut cum María semper stemus juxta Sacrárium Fílii.

*Zuzendariyak:* Oráte pro nobis, Santæ María Magdaléna et álteræ quæ sequebántur et lamentabántur Chrissum passum.

*Guziyak:* Ut numquam dimittámus quem díligit ánima nostra.

*Zuzendariyak:* Dómine, exáudi oratiónem meam.

*Guziyak:* Et clamor meus ad te véniat.

*Znzendariyak:* Dóminus vobíscum.

*Guziyak*: Et cum spíritu tuo.

*Zuzendariyak*: Oremus.- Dómine Jesu, pro cujus amóre baátæ illæ muliéres ómnia dimissérunt et te derelíctum, passum et sepúltum sequi et veneràri curárunt, concéde propítius, ut eárum imitatióne tecum juxto tabernácula tua fidéliter stantes ætérnæ resurrectiónis partícipes éffici mereámur. Qui vivis..

*Guziyak*: Amen.

*Zuzendariyak*: Adjutórium nostrum in nómine Dómini.

*Guziyak*: Qui fecit cœlum et terram.

*Zuzendariyak*: Dóminus vobíscnm.

*Guziyak*: Et cum spíritu tuo.

## OREMUS

Omnípotens sempitérne Deus, qui Sanctórum tuórum imágines sculpi aut pingi non réprobas, ut quóties illas óculis córporis intuémur, tóties eórum actus et sanctitátem ad imitándum memóriæ óculis meditémur, hæc, quæsumus, numísnata, in honórem et memó-

riam misteriórum Córporis et Sánguinis D. N. J. C. adaptátas bene † dícere et sancti † ficáre dignéris; et præsta ut quicúmque ea gestántes, Unigéniti Fílii tui Córporis et Sánguinis mistéria supplíciter cólere et honoráre studúerint, illíus méritis et obténtu a te grátiam in præsénti et ætérnam glóriam obtíneant in futúrum. Per eúmdem Christum D. N.

*Guziyak:* Amen.

Zuzendariyak uŕ onespendubaz ezagunbidiak iguŕtzi ondoren, ezaŕiko ditu esanaz bein bakaŕik:

**Aŕtu Jaun-leku Kalbariyotako Marien ezagunbide au Jesus Aldaretuaren Biyotz Doitsuari luŕeko Bere bakaŕdadetan lagun egiñaz, Barak ere zuei lagun egin degizuten bai emen, eta bai beste bizitzan.**

*Guziyak:* Ala izan dedila.

Asko badira jaŕi beaŕ zayenak, Marien ereziya edo Jesusen Biyotzarena abestu bitez.

Guziyai ezaŕi ondoren, ondo egongo litzake izkuntz egoki bat Jauna agiriyak jaŕita.

# MARIAK NOLAKUAK IZAN BIAŔ DUTEN

## Jantzi-erak

Mariak jantzi-eran begiratuak izan biaŕ dute. Oraingo gaitzik txaŕena emakumien jantzi-era da noski. Gaitz ori eŕi guzitan zabaldu da, ta ez du alde egingo, emakume gienak ez dute nai ta. Emakume guziyak, oraingo jantzi erak oso zirikatzaleak dirala edeŕki dakite, ta Aita Santuak, Apezpikuak eta Apaiz guziyak oiek eragoztean ondo egiten dutela; baño zoritxaŕez bakoitzak uste du eragozpen oiek bestientzat dirala, ez beretzat.

Emakume on eta elizaleak askotan aitoŕtzen, jaunaŕtzen eta itzaldiyak entzuten dakusgu; baño nola? Negaŕgaŕi ta lotsagaŕi da esatea: eŕdi jantziyak eta dana erakusten. Au gaizki dago emakume elizale ta Kristaugan, baño Maria dan emakumeagan guztiz gaizki, guztiz ziŕtzilki. Kristau danak elizbaŕenean eta Jesukŕistoren auŕian

lots aundiz egon beaŕ dute, ta batez ere Mariak, beren zeŕ egiña Jesukŕistoren auŕian askotan egotia ta Jesukŕistoren bakaŕtasun negaŕgaŕiya bere ikustaldi edo bisitakin kentzea da-ta.

Mariak esakun au askotan gogoratu biaŕ dute: Al dezuten bezela jantzi zaitezte, baño galbide-eraz ta lotsagabeki bein ere ez; zuen jantzikin bestiai ez gaizki, baizik on egiteaŕen.

¿Zeŕ egin biaŕ dezute ba zuek nere biotzeko Mariak?

Jesukŕistok biotz biotzetik eskatzen dizutena.

¿Ta Jesukŕistok, ogi ta aŕdopian dagoan Jesukŕistok zeŕ eskatzen dizute aŕen?

Oraingo jantzi-era zirikatzale ta lotsagabekeri kaltez alegin guziya egiteko. Auxe da Jesuŕistoren nai bizi biziya. Ekin ba Mariak; Jesukŕistoren nai ori bete ta Berak zeruko atsegiñakin oso edeŕki oŕdainduko dizute.

## Irakuŕgaiak

Irakuŕgaiak onak eta gaiztoak izan ditezke; gaiztoak zoritxaŕez, onak baño geiago. Irakuŕgai gaiztoak dakaŕtzkiten kalteak ikaragaŕiyak dira; kalteak Eliz Ama Deunari, kalteak gizadiyari ta kalteak danoi.

¿Ta zein dira irakuŕgai gaiztoak eta nola ezagutuko dituzute gaiztoak dirala? Askotan berealaxe ezagutuko dituzute; beste batzuetan ez da ain eŕaxa, ta orduan gizon on eta jakintsu bati galdetu, batez ere apaizai ta apaizetan zuen Zuzendariyari.

¿Ta irakuŕgai onak zeiñ dira? Elizako baimenaz aŕgiratzen diran guziyak.

¿Nola kalte egingo diyozute gaiztoai? Iragaŕiyak eta il-beŕi txaŕtelak beretara biali ez, ta batez ere zuen adizkide ta lagun aŕtian ez irakuŕtzeko alegin guziya eginda.

¿Ta ona dan aldez zeŕ egin beaŕ? Al dituzuten oŕi ta albistari on guziyak bildu ta nun nai zabaldu.

¡Zenbat eŕi Jesukŕistoganako dituzuten lan oiekin! Mariak; ara oŕ ba toki aundiya zuen egimena, indaŕa ta bizkoŕtasuna ageŕtzeko. Ekin eta auŕera.

## Gure len-lengo oitura on edeŕak

Oitura onak galdu gabe dauzkaten eŕi ta sendiyak bikañak eta kristau oso onak dira, ta beren kristautasuna egite guzietan ageŕtzen da. Oitura oien bitaŕtez kŕistauak Jainko legiaren bide edeŕetik pozik eta atsegiñez dabiltza, ta beren asmo guziya, kŕistau Erlijiyoak agintzen duan bezela, bizitzea da.

Euzkaldunak, Jainkoari eskeŕak oraindik oitura asko ta edeŕak galdu gabe dauzkagu: oraindik gure kŕistautasun guziya berak eragiten dute. Baño zoritxaŕez eŕi ta etxe batzuetan galtzen, eta emengoak ez diran oiturak saŕtzen asi dira.

¿Ta zuek Mariak zeŕ egin beaŕko dezute? ¿Gure oitura on eta laztanak galtzen utziko al dezute? Kŕistau onak bazerate, euzkeldun

iaiuak eta Jainko zale ta maitalariyak bazerate, iñola ere ez dezute utzi beaŕ oitura oiek galtzen. Zuen leia, zuen lan guziya gure lengo oitura edeŕak zaitzea izan biaŕ du. Jesukŕistorentzat, zuen biotzeko Jesusentzat guztiz atsegingaŕi izango da noski bazkaltzeko ta apaltzerako bazkariya ta afariya onetsi edo bedeinkatzea; jan-da Jainkoari eskeŕ beroak ematea; etxetikan alde egiterakoan eta lan bat asitzerakoan buruba gurutzatzea; eŕosariyua egunero esatea; gurasoai, apaizai, irakaslari ta aguŕiai ondo begiratzea; gaixo daudenak ezagumena galdu baño len elizakoak aŕtzea, moŕoi ta langileai kalterik ez egitea ta onela beste gure oitura edeŕak.

## ¿Azkenez Mariak zeŕ egin beaŕ dute?

Jesukŕisto gure Jauna eŕitako eliz batzuetan utziya ta bakaŕ bakaŕik dago; beste batzuetan gutxitan ikustalditua ta aŕtua, ta azke-

nez beste batzuetan askotan ikustalditua ta aŕtua.

Utziya ta bakaŕik dagoan elizetan, Mariak Jesukŕistori lagundu egin beaŕ diote ustez ta gorputzez; uztez, Jaunaŕtzeak eta Jesukŕistori egiten dizkioten ikustaldi guziyak eliz oietan egiten dituztela uste izanda; goŕputzez, eŕi oietara Jauna aŕtzera ta ikustaldiyak egitera juanez ta gizon edo emakume on bat gutxienez Jesukŕistori ikustaldiyak egiteko bilatuaz; ikastetxeko mutil koskoŕ ta neskatxatxoakin Jesukŕisto ikustalditzeko ta Bera artzeko sailak eratuaz, ta Misiyoak emateko bideak arkituaz.

Jesukŕisto gutxitan ikustalditua ta aŕtua dan eŕitan Mariak badute zeŕ egiña, askotan ikustalditua ta aŕtua dan eŕitan ere bai. Eŕi oietan Mariak gizon eta emakume danak berotu ta piztutzen jaŕdun, eta bero ta pizte ori ez gutxitzeko anaidi edo bilera batzuek eratu beaŕ dituzte, batez ere Mariaren alabak eta apostoladua.

Mariak, Jesukŕistori bere biotzeko maitetasuna ageŕtzeko, beti du-

te zeŕ egiña. Jesukŕisto gure Jauna ogi ta aŕdopian bakaŕik aŕkitzen da ta laguna beaŕ du; ta lagundua badago, eŕitako auzo denak ez diote laguntzen badiote, ez diote beti ta ondo laguntzen; oŕegatik Mariak Jesukŕistoren aldez beti dauka zeŕ egiña.

## Jesusen Biyotzari ereseŕkiya

Jesus-Biyotz maitekoŕ,
gure erosle kutun:
Zu-maitasun biziyoi
gizonagan saŕtu.

—

Uri ta eŕi danak
Zureganatu itzatzu
Euzko-gogo ta biyotzak
Zuretzat betiko aŕtu.

—

Galbidetaz dijuana
on-bidera ekaŕtzu:
zuzen-bidez dabil̃ena
Zuk betiko lagundu.

—

Biyotz oŕtan lasteŕ danok
danok gaitezen bildu:
beŕtan bizi izateko,
Zugan betiko, Jesus.

## Marien abestiya

---

Ogi ta aŕdo anzpian
dago Jesus maitekoŕ:
gu laguntzat izan gaitzan
baldin ez badu iñoŕ.

—

Goiko Jauna maitetasunak
emen lotu izan zuan,
emen beti bizitzeko
gizon-aldamenean.
Baña gizon eskaŕgiak
uŕuti igesirikan,
bere Jauna utzitzen du
bakaŕtasun il̄unian.

—

Ona Maria guŕtzal̄iak
emen gaituzu geŕtu,
Zuri bakaŕtasun oŕtan
laguntzeko bai geŕtu.
Eta beste biyotz asko
ekaŕiko ditugu,
Zuri lagun egin eta
ditzatzun Zuk donestu.

# AŔKIBIDIA

Ořialdiak

Oařa. . . . . . . . . . . . 5
Jaun - leku - kalbariyo batera bidia ařtzerako otoitzak . . 7
Jaun-lekura iristean esango diran otoitzak . . . . . . 16
Jaun-lekuari azken aguřa . . 21
Jaunařtzia, ta Jaun-leku-kalbariyotako ikustaldiya egunero eskeintzeko otoitza. . 24
Otoitz labuř ta egokiyak Marientzat. . . . . . . . . 28
Jesusen Biyotz doitsubari gozagaři txořta. . . . . . 29
Osti doitsubari ordaingaři egintza . . . . . . . . . 35
Ořdu bete Jaun-lekuaren auřian . . . . . . . . . . 38
Eřosariyo deunaren bidez, Jesusen Biyotz doitsuari Jaun-lekuan lagun egiteko era . 44

Orialdiak

Gurutz-bidea Jaun-leku kalbariyoko Maria ta Joan Deunaren ikasleentzat . . . . 46
Jaun-lekuaren aurian esateko azken otoitza. . . . . . . 55
Mariak beren Jaun-lekuen eritan egiten dituzten ibil-deunetarako . . . . . . . . 56
Mariak beren Jaun-lekuari saritan lagun egiteko era eraxa. . . . . . . . . . . 57
Jaun-lekutik itzulerakuan. . 58
Jauna agiriyan jartzeko eresеrkiya . . . . . . . . . 61
Marien ezagunbidea jartzeko otoitz-abestiyak. . . . . 63
Mariak nolakuak izan biar duten . . . . . . . . . 68
Jesusen Biyotzari eresеrkiya. 75
Marien abestiya. . . . . . 76